

Zaldibar_Sallabente auzo batzarreko Akta

Zaldibar_Acta del consejo vecinal de Sallabente

Data/Fecha:	Ordua/Hora:	Lekua/Lugar:
24/06/2014	19:00-20:15	Sallabenteko auzo-etxea / Auzo-etxe de Sallabente

Udaletxea/Ayuntamiento	Herritarrak/Ciudadanía	Aholkularitza enpresa/Empresa consultora
<ul style="list-style-type: none"> Arantza Baigorri (Alkatea/Alcaldesa) Olaia Araucua (Zinegotzia/Concejal) Jose Andres Urizar (Zinegotzia/Concejal) Aitor Arizmediarrieta (Zinegotzia/Concejal) 	<ul style="list-style-type: none"> 5 herritar / 5 ciudadanos 	<ul style="list-style-type: none"> Loinaz Azurmendi (Siadeco)

1. Ongietorriak eta foroari sarrera

Alkateak hasiera ematen dio auzo batzarrari bertaratutakoei ongietorria eta eskerrak emanez. Jarraian aurkezpenak egiten ditu eta saioari hasiera ematen dio. Bilera udalaren eta herritarren arteko harreman gune eta herritarren partaidetza bultzatzeko marko orokorraren barruan kokatzen da, konkretuki Tokiko Agenda 21aren eremuan. Eguneko gai-zerrenda eta batzarraren helburu nagusiak aipatzen dira.

2. 2014ko Udal aurrekontuaren inguruko aipamenak

Udaleko ordezkariak aurrekontuen inguruko azalpenak ematen ditu:

- Aurrekontua guztira: 2.729.686,57 €. Gastuari loturiko arautegia betetzen da.
- Soberakina: 529.000€, horietatik 223.000€ banketxeekiko zorra kitatzeko eta 305.000€ Udalaren gastuetarako erabiliko dira.
- Aurreko puntuan adierazitako 305.000€tatik 210.000€ Euskalherria-tik pasatzen diren kamioiei beste ibilbide bat prestatzeko erabiliko dira, Autonomia-tik bariantarako irteera eta Euskalherriatik Solozabal poligonorako sarbideak egokituz.
- Gainontzekoa beharren arabera xahutzen joango da, urte bukaeran ustekabeko gastuetarako kantitate bat gordez.

Gainontzean, urteko aurrekontuaren zati handiena Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean jasotako ekimenak ordaintzera bideratuak daudela adierazten du udaleko ordezkariak. Zaldibarko Udaleko Plan Orokorra aurrerakin fasean dago, herritarrentzako erakusgai, udalean, uztailaren 12ra arte. Irailean emango zaio behin behineko onarpena eta ondoren beste hilabeteko epea dago alegazio ezberdinak aurkezteko.

1. Bienvenida e introducción al Foro

La Alcaldesa comienza la reunión dando la bienvenida y agradeciendo a los presentes su asistencia. Seguidamente, realiza las presentaciones pertinentes y la introducción a la sesión. El encuentro se contextualiza en el marco de las relaciones entre el Ayuntamiento y ciudadanos y participación ciudadana, concretamente dentro de la Agenda Local 21. Se procede a la presentación del orden del día y de los objetivos de la sesión.

2. Pinceladas acerca del presupuesto municipal 2014

El representante del Ayuntamiento menciona varios datos acerca del presupuesto municipal:

- Presupuesto total: 2.729.686,57 €. Cumplimos la regla de gasto.
- Remanente: 529.000€ de los cuales 223.000€ para quitar deuda del banco y 305.000€ para gastos del ayuntamiento.
- De los 305.000€ 210.000€ se utilizarán para eliminar el paso de camiones por Euskalherria adecuando la unión entre la salida de la variante por Autonomía y el acceso al polígono de Solozabal por Euskalherria.
- El resto del dinero si irá gastando según las necesidades, dejando cierta cantidad por si surgen imprevistos a final de año.

La mayor parte del presupuesto se destinara a financiar las acciones recogidas en el Plan General de Ordenación Urbana. Dicho plan se encuentra en fase de avance, expuesto a la ciudadanía hasta el 12 de julio. Entonces se le dará la aprobación provisional y habrá otro mes de plazo para realizar las alegaciones pertinentes.

3. Eskaerei emandako erantzuna

Jarraian, Udaleko ordezkariak aditzera ematen du azken urteetan Zaldibarko herritarrengandik jasotako eskaerekin egindako zerrendaren gaineko zenbait azalpen emango dituela Udala zertan dabilen eta zer geratzen den egiteke herritarrek ere jakin dezaten.

Jada aurrera eramandako ekintzen artean daude:

- Lan poltsa publikoak sortu (liburuzaina, brigada eta administrariena).
- Osakidetza eraikuntza erabilera anitzeko espazioa bihurtu: hitzarmena sinatzea besterik ez da falta.
- Gizarte diru-laguntzak handitu: Durangaldeko Mankomunitatearen bitartez bideratua.
- Saihesbidea Euskalherria kaleko trafikoa kentzeko. Bertatik pasatzen diren kamioiak pasatzeko beste ibilbide bat egingo da, onartua dago jada. Aurrekontu arazoengatik haxe da egin daitekeena.
- Futbol zelai zaharrek dorretxea eta ondoko eremua erabilgarri bihurtu herritarrentzat. Auzolandegi programaren bidez aurrera eraman da garbiketa eta orain atontzea geratzen da.

Zenbait urrats eman dituzte ondorengo ekimenei lotuta:

- Udal-zergetan beherapenak egokitu diru sarrera gutxi duten bizilagunentzat: IBI ordaintzeko laguntzak, eskolarako arropak, langabezian dauden pertsonak formakuntza ikastaroetara iristeko desplazamendu gastuetarako laguntzak, etab.
- Etxe hutsak merkaturatzeko neurriak hartu: Zaldibarren hutsik dauden etxeen errolda osatzea da orain egiten ari direna.
- Euskararen aldeko kanpaina eta ekintzak sustatu. Mantendu egin dira orain artekoak.
- Oinezkoen aldeak handitu, pasabide jasoak, eskudelak, espaloiak egokitzea. Eitzaga auzoan egin dira horrelako zenbait ekimen.

Landu gabekoak dira:

- Eguneko udal-zentroa osatu. Osakidetzarekin harremanetan dago Udala baina oraindik asko falta da zerbait lortzeko.
- Herriko ostalariak eta dendariak babestu eta sustatu. Orain arteko baldintzak mantendu zaizkie baina ez da bestelako neurririk hartu.
- Ibilbideak eta natur bideak egokitu eta motordun ibilgailuengandik babestu: arazo arriskutsua da baina zaila bertan eragiteko neurriak hartzea.
- Euskara ikasteko laguntzak handitu. Ez dira handitu, mantendu bai.
- Parekidetasuna bultzatzeko ekintzak ugaritu. Orain arte teknikari bat kontratatzen zuen Udalak baina Estatuak ezarritako legea dela eta, ezin jarraipenik eman.
- Herritarren erabilpenerako udal ortu ekologikoak bideratu. Ez dago aukerarik lursail faltagatik.
- Sanjuangoa kultur etxea eraiki. Oraingoz ezinezkoa.

3. Respuesta a las demandas ciudadanas

A continuación, la representante del Ayuntamiento indica que a lo largo de los últimos años han recabado una serie de peticiones y demandas por parte de los vecinos de Zaldibar y se expondrá de forma breve para que la gente sepa en qué punto está la situación, qué es lo que se ha hecho y lo que falta por hacer.

Las actuaciones en las que se ha incidido son las siguientes:

- Crear bolsas de trabajo públicos (bibliotecario, brigada y administrativo).
- Convertir el edificio de Osakidetza en un espacio multiusos: únicamente falta firmar el acuerdo.
- Potenciar las subvenciones de Bienestar Social. A través de la Mancomunidad de la Merindad de Durango.
- Variante para quitar tráfico en la calle Euskalherria. Aprobada la construcción de un paso alternativo para camiones por razones de presupuesto.
- Convertir la zona y alrededores de la casa-torre del campo de fútbol viejo para el uso de los ciudadanos. La limpieza de la zona se ha llevado a cabo mediante un programa de trabajo vecinal.

Se han dado ciertos avances en cuanto a:

- Realizar descuentos en impuestos municipales para vecinos con pocos ingresos: descuento pago IBI, ropas para el cole, ayudas transporte para cursos de formación de desempleados, etc.
- Tomar medidas para poner en el mercado viviendas vacías: se está elaborando el censo de viviendas vacías de Zaldibar.
- Impulsar campañas y acciones a favor del Euskara. Se mantienen las campañas de años anteriores.
- Ampliar zonas peatonales, pasos realizados, barandillas, reparación de aceras, etc. Se han llevado a cabo varias actuaciones en el barrio de Eitzaga.

Las solicitudes que están pendientes de actuación por parte del Ayuntamiento son:

- Impulsar un centro de día municipal. El Ayuntamiento mantiene contactos con Osakidetza pero aún queda mucho por hacer.
- Apoyar e impulsar al Comercio y los productores locales. Se les mantiene las condiciones actuales pero no se han tomado nuevas medidas al respecto.
- Acondicionar circuitos y rutas naturales y protegerlas de los vehículos motorizados: se trata de un problema en el que es difícil actuar.
- Aumentar ayudas para aprender euskera. Se mantiene las de hasta ahora.
- Aumentar las acciones para fomentar la igualdad de género. Hasta ahora se contrataba a un técnico para impulsar este tipo de actuaciones pero la nueva Ley impulsada desde el Estado no permite realizar contrataciones de personal al Ayuntamiento.
- Huertas ecológicas municipales para el uso de los ciudadanos. La falta de terrenos en propiedad imposibilita desarrollar este proyecto.
- Construir la casa de cultura Sanjuangoa. Imposible por el momento.

Udalaren aurrekontuen arabera herritarrek euren parte-hartzearekin egindako eskaerei erantzuteko saiakerari jarraipena emango zaio pixkanaka.

Herritarren eskaera guztiak jasotzen dira ondorengo zerrendan. Kolore berdez daudenak dira Udalak jada egin dituen ekintzak, beltzez daudenak dira, aldiz, oraindik bideratu gabekoak.

En función de la disponibilidad presupuestaria el Ayuntamiento intentará ir respondiendo a las solicitudes y propuestas ciudadanas.

El listado completo de las propuestas ciudadanas es el siguiente. Están marcadas en verde las actividades ya ejecutadas por parte del Ayuntamiento, y en negro las pendientes de ejecución.

Zelan erantzun die Udalak aurreko foroetan herritarrek egindako proposamen eta eskaerei? *¿Qué respuesta ha dado el Ayto. a propuestas de los ciudadanos en foros anteriores?*

Zkia.	Proposamen/eskaera	Puntuaketa
1.	Lan poltsa publikoak sortu <i>Crear bolsas de trabajo públicos</i>	473
2.	Udal-zergetan beherapenak egokitu diru sarrera gutxi duten bizilagunentzat <i>Realizar descuentos en impuestos municipales para vecin@s con pocos ingresos</i>	463
3.	Etxe hutsak merkaturatzeko neurriak hartu <i>Tomar medidas para poner en el mercado las viviendas vacías</i>	436
4.	Osakidetzako eraikuntza erabilera anitzeko espazio bihurtu <i>Convertir el edificio de Osakidetza en un espacio multiusos</i>	435
5.	Eguneko udal-zentroa bultzatu <i>Impulsar un centro de día municipal</i>	425
6.	Herriko ostalariak dendariak babestu eta sustatu <i>Apoyar e impulsar Comercio y los productos locales</i>	419
7.	Gizarte diru laguntzak handitu <i>Potenciar las subvenciones Bienestar Social</i>	419
8.	Ibilbideak eta natur bideak egokitu eta motordun ibilgailuengandik babestu <i>Acondicionar circuitos y rutas naturales y protegerlas de los vehículos motorizados</i>	416
9.	Saihesbidea Euskalherria kaleko trafikoa kentzeko <i>Variante para quitar tráfico en la calle Euskalherria</i>	415
10.	Euskara ikasteko laguntzak handitu <i>Aumentar ayudas para aprender Euskara</i>	412
11.	Euskararen aldeko kanpainak eta ekintzak sustatu <i>Impulsar campañas y acciones a favor del Euskara</i>	409
12.	Eskaintza kulturalak ugartu <i>Aumentar la oferta Cultural</i>	408
13.	Parekidetasuna bultzatzeko ekintzak ugartu <i>Aumentar las acciones para fomentar la igualdad de géneros</i>	405
14.	Futbol zelai zaharreko dorretxea eta ondoko eremua erabilgarria bihurtu herritarrontzat <i>Convertir la zona y alrededores de la casa-torre del campo de futbol viejo para el uso de l@s ciudadan@s</i>	401
15.	Oinezkoen aldeak handitu, pasabide jasoak, eskudelak, espaloiak egokitu, ... <i>Ampliar zonas peatonales, pasos realzados, barandillas, reparación de aceras, ...</i>	382
16.	Herritarren erabilpenerako udal ortu ekologikoak bideratu <i>Encaminar huertas ecológicas municipales para el uso de l@s ciudadan@s</i>	378
17.	Sanjuangoa kultur etxea eraiki <i>Construir la casa de cultura Sanjuangoa</i>	375
18.	Haur jolasen guneak berritu <i>Renovar zonas de juegos infantiles</i>	374
19.	Kontsumo ekologikoa bultzatu eta sustatu <i>Impulsar el consumo ecológico</i>	373
20.	Elkartasun egitasmoak eta nazioarteko elkarlana bultzatu <i>Impulsar proyectos de solidaridad y cooperación</i>	373

Zkia.	Proposamen/eskaera	Puntuaketa
21.	Eskola kirola eta lehiaketa ez den kirolaren diru-laguntzak handitu <i>Aumentar las subvenciones para promoción del deporte escolar, no competitivo, ...</i>	366
22.	Euskalherria kalea peatonalizatu <i>Peatonalizar la calle Euskalherria</i>	363
23.	Bestelako jaiak ospakizunak topaketak sustatu <i>Promocionar otro tipo de ferias, celebraciones, fiestas</i>	356
24.	Babes ofizialeko etxebizitzak eraiki <i>Construir viviendas de protección oficial</i>	346
25.	Jesarlekuak, paperontziak mantendu eta berritu <i>Mantener y renovar bancos y papeleras</i>	334
26.	Auzolana egitaratu eta egonkortu <i>Programar y estabilizar Auzolana</i>	332
27.	Norabide bakarreko kaleak, seinaleak, parking plaza gehiago <i>Calles de sentido único, señales, más plazas de parking</i>	329
28.	Trukerako azokak zein Bigarren eskuko azokak bultzatu eta sustatu <i>Impulsar el mercado de intercambio y de segunda mano</i>	325
29.	Mankomunitate mailako harrera etxebizitza gauzatu <i>Materializar la vivienda de acogida a nivel de Mancomunidad</i>	324
30.	Kaleko argien berriztapena edo aldaketa bultzatu <i>Impulsar la renovación o sustitución del alumbrado público</i>	320
31.	Etorkinen harrera eta aholkularitza juridikoa sustatu <i>Promover la acogida a extranjer@s y el asesoramiento jurídico</i>	320
32.	Komun publikoak egin <i>Realizar váteres públicos</i>	306
33.	Jaietako aurrekontua gutxitu <i>Disminuir el presupuesto de fiestas</i>	296
34.	Jaietako aurrekontua handitu <i>Aumentar el presupuesto de fiestas</i>	285

4. Zabor kudeaketa ereduan aldaketak

Zaborren kudeaketa ereduan aldaketak egongo direla adierazten du Udal ordezkariak. Orain arte Debabarrenarekin egiten zena, urtean 45.000 euroko kostuarekin, aurrerantzean Durangaldeko Mankomunitatearekin egingo da, kostu murrizketarekin. Mankomunitateak bultzatutako gai organikoaren bilketa eta 5. edukiontzia programan sartu da Zaldibarko udala. Ondorioz, biztanleek egun dauden edukiontzia aldatuko zaizkiela nabaritutako dute eta lursaila dutenak autokonpostarako aukera izango dute gain-kosturik gabe.

Udaleko ordezkariak adierazten du baita ere 5. edukiontzia eta autokonpostaren sistema hau abian jartzeak ez duela esan nahi agian aurrerago beste sistema hobetoago bat aurkitu eta horretara aldatuko ez denik. Helburua, beti ere, zabor gutxiago sortzea litzateke.

Berlaratuek hitza hartzen dute eta paper eta kartoiaren edukiontzia faltan botatzen dutela eta edukiontzia pedaldunak izan daitezen eskaerak egiten dituzte.

4. Cambios en el modelo de gestión de residuos

Desde el Ayuntamiento se anuncia que en breve habrá cambios en el modelo de gestión de la recogida de residuos. Lo que hasta ahora estaba en manos de Debabarrena pasará a manos de la Mancomunidad de Durangaldea, con una reducción del gasto por el servicio de recogida. Zaldibar formará parte del proyecto de recogida de materia orgánica y quinto contenedor promovido por la Mancomunidad de Durangaldea, y los vecinos verán un cambio de contenedores y los que posean una parcela tendrán opción a realizar auto compostaje en sus propias casas sin ningún sobrecoste.

La representante del Ayuntamiento indica que implantar este sistema de auto compostaje y quinto contenedor ahora no significa que más adelante no vayan a encontrar otro sistema más adecuado. El objetivo fundamental siempre será generar la menor cantidad posible de residuos.

Los asistentes indican que echan en falta contenedores para la recogida de papel y cartón y que sería conveniente que los nuevos contenedores dispusieran de pedal para facilitar su apertura y manejo.

5. Bertaratuen eskaera eta proposamenak

Herritarrek hitza hartzen dute euren ekarpenak egiteko:

- **Aresti baserria:**

Baserriak postontzi gabe jarraitzen duela aditzera ematen du herritar batek. Udalak trenbide ondoan, geralekuan, jarritako postontziarekin ez dago konforme jende asko ibiltzen delako bertatik eta ez delako ziurra eta beraz, Udalari eskatzen dio postontzia jarri diezaiola bere etxean bertan. Gainera, baserriko bidean dagoen farola bakarra nahikoa ez dela kontsideratuz, bigarren farola bat ezartzeko eskaera ere egiten dio Udalari, 2011 eta 2012 urteetako saioetan bezalaxe. Etxebizitza bakarra dagoen zonalde batentzako nahikoa dela uste du Udalak baina bertan bizi den herritarrak dioenez, horrexegatik hain zuzen ere eskatzen du bigarren farola bat, iluntasunagatik eta ziurtasun falta sentitzeagatik; izan ere, tren geralekuko farolak itzaliak egoten dira goizeko 5:45ak arte.

Zaldibarko mugak kontuan izanda zubia eta ingurua Ermua dela dio Udaleko ordezkariak. Hala ere, etxea Zaldibarren kokatua dagoela eta Udalaren eginbeharra dela Zaldibartarrei erantzutea eta kontuan hartuko dituztela bere eskaerak erantzuten dio. Den den, bertaratu omen da egunen batean eta argi dezente dagoela iruditu zaiola. Gauean geralekuko farolak itzaltzen direnean bertaratu daitezzen eskatu du herritarrak.

Aresti baserriari dagokionean, baserrirako bideak agertzen duen sarbide zailtasunari konponbiderik ez ziola eman ere adierazten da eta aurreko urteetako foroetan adierazitako egoera berdinean jarraitzen dutela. Egoerak eragiten duen arriskuaren aurrean neurriak har ditzan eskatzen zaio Udalari.

- **Eibar eta Ermua arteko ibai ondoko parke-pasealekua Zaldibargo lursailtan:**

Zaldibargo Udalak hirigintza plangintzako aurrerapenean jaso duen eta Eibar eta Ermuako Udalek bultzatutako ibai inguruko parkearen proiektuarengatik galdetzen dute. Plangintzan jaso egonagatik ere, behin betiko Plangintza Orokorraren onarpena egiteke dagoenez, erabat lotu gabe dagoen proiektua dela adierazten da Udaletik. Egitekoen artean, oinezko eta bizikletentzako ibiltokia legoke, 5 m-ko zabalera eta 417,50 m-ko luzerarekin, eta gimnasiarako zenbait aparailu ere jartzea aurreikusten du proiektuak. Horrela, Olarreaga kanalaren albotik, Ego ibaiaren ezkerreko aldean, errotaraino iritsiko litzatekeen bidegorria osatuz. Ego ibaia zeharkatzeko pasabide berriak %6ko malda izango luke, barianteko biaduktuaren azpitik dagoen igarobidetik hasita.

5. Propuestas y demandas de los asistentes

A continuación, se da paso a los ciudadanos y ciudadanas para que realicen sus aportaciones:

- **Caserío Aresti:**

Uno de los asistentes indica que el caserío sigue sin buzón propio y que en ocasiones no le llega el correo. Añade que no está conforme con el buzón que el ayuntamiento ha colocado en las inmediaciones de la vía del tren, al lado del apeadero, debido a que andan muchas personas por la zona, y solicita expresamente que se le instale un buzón en el propio caserío. Además, considera que la única farola existente en el camino al caserío no es suficiente y solicita que se le instale una segunda farola. El Ayuntamiento considera que la farola que ilumina el camino es suficiente para una zona habitada por un solo caserío y la ciudadana afectada señala que, precisamente por ello (por falta de iluminación e inseguridad) demanda la segunda farola porque las luces del apeadero permanecen apagadas hasta las 5:45 de la mañana.

Desde el Ayuntamiento indican que teniendo en cuenta las lindes del municipio, el puente de acceso al caserío y la zona adyacente pertenecen a Ermua, pero el caserío se sitúa en terrenos de Zaldibar y el Ayuntamiento tendrá en cuenta sus peticiones pero que consideran que hay suficiente iluminación en la zona. La vecina invita a que se pasen por la zona cuando las farolas del apeadero estén apagadas.

En relación al caserío Aresti, la misma vecina emplaza al Ayuntamiento a buscar soluciones ante la dificultad en el acceso del camino del caserío. Se trata de una petición realizada en los foros de años anteriores y la problemática no ha cambiado.

- **Parque fluvial entre Eibar y Ermua, en terrenos de Zaldibar:**

Los asistentes preguntan por la situación del proyecto y desde el Ayuntamiento indican que Zaldibar ha recogido, en el avance de su planeamiento urbanístico, el proyecto de construcción del parque fluvial que promueven Eibar y Ermua en el límite de los territorios. No obstante, se requiere ahora la aprobación definitiva del Plan General para que este proyecto pueda echar a andar. Entre las tareas a realizar, se plantea la ejecución de un paseo peatonal y ciclable de 5 m de anchura y 417,50m de longitud, junto con aparatos de gimnasia, conformando un bidegorri por la margen izquierda del río Ego junto al canal de Olarreaga hasta el molino. Con todo ello, se plantea un nuevo paseo que ascenderá con una pendiente del 6% desde el paso por debajo del viaducto de la variante.

Proiektua ez dagoena erabat zehaztua azpimarratzen da Udaletik.

Proiektu honen ildotik, saiora bertaratutako bi herritarrek informazio eta zehaztapen gehiago nahiko lituzketela adierazten dute. Udalak argibide gehiago emateko beste saio bat aurrerago antolatuko dutela udal arkitektoarekin batera adierazi diete.

- **Kolektore berriak:**

- Kolektore orokorra inauguratu berria da. Auzoko kolektorea inauguratu berri den kolektore orokorrera konektatzea izango litzatekeela logikoena adierazten dute herritarrek. Bata betearengandik 40 m-tara daudela eta aukera aprobetxatu beharra dagoela.
- Beste herritar batek adierazten du kolektorearen obrak direla eta 1400 m karratuko bere lurzorua 300 m karraturen "desjabetza" izan zuela bere momentuan baina obrak bukatuta egonik bere lur eremuan jarraitzen dutela. Kontu hau zein egoeratan dagoen jakin nahiko lukeela eta Udalarri jarraipena egin eta herritarrak informatu ditzan eskatzen dio.

- **Ibur-Erreka poligonoaren proiektua:**

Udalak Inbisarekin negoziazioan jarraitzen du zonaldearen argiztapen eta urbanizazio lanei dagokionean.

Zonalde horretako hondakin-urei dagokionean zentzuzkoena Unibertsitateko arketara lotzea litzatekeela adierazten dute herritarrek.

- **Errepide alboko hesia:**

Errepide alboko hesietako baten arazoa dela eta, oso egoera txarrean dagoela eta Udalarri eskatzen zaio Foru Aldundiari presio gehiago egiteko hesia aldatu dezan; arriskua handia da eta dagoeneko zati bat erori omen da.

6. Hurrengo urratsak eta agurrak

Behin saioa amaituta, bilerako edukiak eta egindako proposamenak aktan jasota geratuko direla gogorarazten zaie bertaratuei. Akta Udalera bidaliko da, guztiontzako publikoa izango delarik.

Guztion etorrera eta parte-hartzea eskertuz, amaiera ematen zaio saioari.

Aun así, se subraya que el proyecto no está totalmente definido.

En relación a este proyecto, dos asistentes a la sesión indican que les gustaría obtener mayor información. El Ayuntamiento anuncia que más adelante celebrará otra sesión para informar debidamente a la ciudadanía.

- **Nuevos colectores:**

- Acaba de ser inaugurado el nuevo colector general. Los asistentes indican que lo más lógico sería conectar el colector del barrio a dicho colector general ya que están a 40 metros el uno del otro y hay que aprovecharlo.
- Otro asistente indica que debido a las obras del colector se le expropiaron 300 m² de su terreno y ahora que han acabado las obras sus tierras siguen "ocupadas". Solicita al Ayuntamiento que realice un seguimiento de este tema e informe a los vecinos.

- **Proyecto polígono Ibur-Erreka:**

Se continúa con la negociación con Inbisa en relación a la iluminación y urbanización de la zona.

En cuanto a las aguas residuales de la zona, se comenta que lo más lógico sería conectarlas a la arqueta de la Universidad.

- **Valla cercana a la carretera:**

En cuanto al problema con una de las vallas que hay en la carretera, uno de los asistentes indica que aunque el tema compete a la Diputación, desde el Ayuntamiento tendrían que hacer mayor presión para que lo cambien porque está muy peligroso e incluso se ha caído un trozo.

6. Próximos pasos y despedida

Una vez finalizada la sesión, se comunica la metodología del levantamiento de acta de la reunión, el envío de ésta al Ayuntamiento y su posterior disposición pública a la sociedad.

Se agradece su presencia y participación en el foro a los ciudadanos que se han acercado a la sesión.